

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3404

EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 24koa, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Arruloidi, SL-ren disko-arrainak hazteko proiektua.

Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzan espediente hau izapidetzen ari da: Orion disko-arraina (*Symphysodon spp*) hazteko espedientea.

Horrenbestez, Ingurumen-Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ondoko lerroetan aipatzen den espedientea jendaurrean jartzea, 30 egunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Espedientea: Disko-arraina (*Symphysodon spp*) hazteko egitasmoa. Tokia: Aldagain etxea, San Martin auzoa 9. PK: 20.810. Orio (Gipuzkoa).

Proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar du.

Proiektua onartzeko organo eskuduna Eusko Jaurlaritzaren Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza da.

Bigarrena.– Espedientea helbide honetan dago ikusgai:

https://www.euskadi.eus/jendeaurreko_erakustaldia/arruloidi-s-lak-akuikultura-apaingarri-jasangarriaren-proiektuaren-ingurumen-inpaktuaren-azterketa-orioko-udal-mugar-tean/web01-a2arraku/eu/

Eskuragarri dago, era berean, Eusko Jaurlaritzaren Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzan (Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián kalea 1, Lakua I eraikina, 3. solairua). Bertan eskura daiteke proiektuaren gaineko informazioa.

Alegazioak aurkeztu daitezke 30 eguneko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoitza elektronikoko honetan:

pesca-dec@euskadi.eus

Edo Eusko Jaurlaritzaren Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, 3. solairua).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 24a.

Arrantza eta Akuikulturako zuzendaria,
LEANDRO AZCUE MUGICA.